Inazio Uriartek GUKi erantzun dio gobernu taldeak herritarrentzako eskuragarri jarri duela kalitatezko azpiegitura bat, hau da, Romo Kultur Etxea, eta herritarren artean harrera ona izan duela. Eraikinak bizilagunenak dira, eta aurrekontu parte hartzaileetan herritarren lehentasunak zeintzuk diren ikusi da, eta kreditu osagarriak gehitu zaizkie aurrekontuei lehentasun horiek kontuan hartuz, eta esan du udal eraikin horiek ez daudela lehentasun horien artean, baina hala ere mantentze lanak egiten jarraituko dutela. Hala, horrek guztiak lehentasunak ezartzea eta planifikazioa definitzea behar du, beharrezko baliabideak izateaz gain.

Inazio Uriarte contesta a GUK que el equipo de gobierno pone a disposición de la ciudadanía una infraestructura de calidad como la Romo Kultur Etxea que ha tenido una gran aceptación. Los edificios son de los vecinos y en los presupuestos participativos se han visto las prioridades de la ciudadanía y se han incorporado a los presupuestos los créditos adicionales dando cuenta de las prioridades manifestadas e indica que esos edificios municipales no figuren entre las prioridades demandadas, pero pese a ello no van a dejar de actuar en labores de mantenimiento pero que todo ello exige una priorización y una planificación además de contar con recursos.

Ibon Rodríguezek esan du harrigarria dela PPek aurrekontu teknikei buruzko eskolak ematea 2016ko aurrekontuetan beraien zuzenketekin gertatutakoaren ondoren. Onartu du proposamen zehatzagoa aurkeztu nahiko lukeela, baina esan du ez dituztela gobernu taldeak dituen baliabideak, eta hala balitz, proposamen zehatzagoak egingo lituzketela. EH Bilduk uste du berdintasuna lortzeko bide luzea egin behar dela, eta horretarako tresnak behar direla, eta tresna garrantzitsu bat emakumeen etxea dela, baina hori emakumeen parte hartzearekin gauzatu behar dela esan du. 2016an egindako azterketan kontuan hartu zen parte hartzea, eta eredu ezberdinak aztertu ziren, baina ez da gehiagorik egin, eta proposamenak berdintasunean aurrera egiteko helburua du.

Ibon Rodríguez indica que le parece sorprendente que el PP de clases de técnica presupuestaria tras lo que le aconteció a sus enmiendas en el presupuesto de 2016. Reconoce que les gustaría presentar una propuesta con mayor concreción pero carecen de los medios con los que cuenta el equipo de gobierno y si pudieran disponer de los mismos las propuestas serían mucho más concretas. EH Bildu cree que queda un largo camino para la igualdad y para ello hacen falta instrumentos y uno importante es la casa de las mujeres pero que ha de realizarse con participación de las mujeres. En el estudio realizado en el año 2016 se tuvo en cuenta la participación y se vieron diferentes modelos pero nada más se ha hecho y la propuesta pretende avanzar en el camino de la igualdad.

Inazio Uriartek erantzun du kontran agertzeko zehaztapena falta dela arrazoitzea EH Bilduk planteatu duen zerbait dela, eta ez gobernu taldeak.

Inazio Uriarte replica que el argumento de falta de concreción para posicionarse en contra es algo que ha planteado EH Bildu y no el equipo de gobierno.

Nerea Guijarrubiak erantzun du zehaztapen falta ez dela aitzakia, baizik eta arrazoi politikoa, eta EH Bilduk ez dituela gobernu taldeak dituen ekipamendu teknikoak EH Bilduri zehaztapen maila berdina eskatu ahal izateko.

Nerea Guijarrubia replica que lo de la falta de concreción no se trata de ninguna excusa sino de una razón política y EH Bildu no tiene los equipos técnicos del equipo de gobierno para que se le pueda exigir la misma concreción.

Zuzenketa bozkatu dute eta ez da onartu, aldeko 8 botorekin, GUK, EH Bildu; kontrako 17 botorekin, EAJ, PSE-EE, Ciudadanos.

Sometida la enmienda a votación es rechazada al obtener 8 votos a favor, GUK, EH Bildu; 17 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos.

Ondoren hasierako terminoetan aurkeztutako proposamenaren inguruan eztabaidatu da, aurkeztutako zuzenketak ukatu ondoren.

A continuación se procede a debatir la propuesta presentada en los términos iniciales tras el rechazo de las enmiendas presentadas.

Oier Iturraldek esan du ez dutela proposamena babestuko, eta horregatik aurkeztu dituztela zuzenketak. Zehaztapenak gobernu taldeak eman behar ditu, ekipamendu teknikoak dituelako. Esan du udal eraikinentzako 500.000 euroak lehenengo kontsignazioa direla, eraikinen egoera jorratzen hasteko.

Oier Iturralde indica que no apoyarán la propuesta y por ello han presentado las enmiendas. Las concreciones las debe de dar el equipo de gobierno que tiene equipos técnicos. Indica que los 500.000 euros para edificios municipales es una primera consignación en la línea de atender el estado de los mismos.

Inazio Uriartek erantzun du aurrekontu honetan proiektuak eta kontsignazioak zehazten direla, eta horren kontra bozkatuko dute proposamena babesten ez dutenek.

Inazio Uriarte replica que en este presupuesto se concretan proyectos y consignaciones y a eso es lo que van a votar en contra los que no apoyen la propuesta.

Paula Amievak esan du zuzenketa ez denez onetsi, uste duela udal ekipamenduak ez direla zuzen jorratuko, eta beraz, ez dute proposamenaren alde egingo. Esan du gobernu taldeak egoki deritzon eraikinetan eta jarduketetan inbertitzen duela, eta ahaztu egiten zaizkiela udal eraikin gehienak.

Paula Amieva indica que dado que no se ha aceptado la enmienda creen que no se va a atender correctamente a los equipamientos municipales por lo que no apoyarán la propuesta. Manifiesta que el equipo de gobierno solo invierte en aquellos edificios y actuaciones que le parecen bien olvidando gran parte de los inmuebles municipales.

Proposamena bozkatu da honako emaitzarekin: 16 aldeko boto, EAJ, PP, PSE-EE; kontrako boto 8, GUK, EH Bildu; abstentzio 1, Ciudadanos.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 8 votos en contra GUK, EH Bildu; 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acuerda:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2018/28 zenbatekoa 395.026,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2018/28 de Crédito Adicional, por importe de 395.026,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | Programa | Zenbatekoa |
|---|---|---|

| | | | Importe en € |
|---|---|---|---|
| 004/3331/6010000 | Azpiegitura eta Hirigintza<br>Infraestructura y Urbanización | Romo Kultur Etxea<br>Aula de Cultura de Romo | 133.000,00 |
| 004/3331/6230200 | Instalazioak<br>Instalaciones | | 19.500,00 |
| 004/3331/6250100 | Mobiliario | | 30.598,00 |
| 004/3332/6220200 | Bestelako eraikin eta eraikuntzak<br>Otros edificios y construcciones | Getxo Antzokia | 7.500,00 |
| 004/9207/6220200 | Bestelako eraikin eta eraikuntzak<br>Otros edificios y construcciones | Eraikinen kudeaketa<br>Gestión de edificios | 204.428,00 |
| Guztira / Total | | | 395.026,00 |

**Finantzaketa / Financiación**

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako<br>Remanente de tesorería para gastos generales | 395.026,00 |

**79.- GETXO TXUKUN (SANTA ANA) PROGRAMAKO JARDUKETETARAKO KREDITU OSAGARRIA ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren Inazio Uriartek esan du proposamena Santa Anako jarduketei buruzkoa dela, Getxo Txukun programatik eratorritakoak, eta horiek zehaztu ditu.

Ibon Rodríguezek Inazio Uriarteri esan dio oposizioari egin dizkioten kritikak gobernu taldeari ere aplikatzekoak direla. Gobernu taldeak egindako proposamenak gardenak ez zirenez izan, abenduan EH Bilduk galdera batzuk aurkeztu zituen, eta maiatzean jaso zituzten erantzunak. Beraiek aurkeztutako 500.000 euroko aurrekontuetako gehikuntzei dagokienez, adierazitako proiektuentzat lehenengo ekarpena direla adierazi du. Aurkeztu den proposamen zehatzari dagokionez abstenitu egingo dira, baina kontrako botoa ere eman ahal izan dute, Getxo Txukun programa nola planteatu den kontuan hartuta, eta programa hori

**79.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA ACTUACIONES DEL PROGRAMA GETXO TXUKUN-SANTA ANA.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte que indica que la propuesta se refiere a las actuaciones a realizar en Santa Ana derivadas del programa Getxo Txukun detallando las mismas.

Ibon Rodríguez indica a Inazio Uriarte que las críticas que realizan a la oposición son también aplicables al equipo de gobierno. La falta de tranparencia del equipo de gobierno en las propuestas hizo que en diciembre EH Bildu presentara unas preguntas que han sido respondidas en mayo. Respecto a los incrementos de presupuestos de 500.000 euros que han presentado, son una primera aportación para los proyectos indicados. En relación a la propuesta concreta que se presenta se van a abstener aunque podrían votar en contra teniendo en cuenta cómo se plantea el programa Getxo Txukun y este programa en concreto finalizó en junio de 2017 y

bereziki 2017ko ekainean bukatu zen, eta aurkeztutako 624 proposamenetatik bakarrik bi planteatu dira. Kritikatu egin dute aurkeztu beharreko proposamenak aukeratzeko irizpidea gobernu taldearen proiektu politikoarekiko duten babes maila izatea, nahiz eta hori guztia Getxo Txukun bezalako proiektu batek estali, iruzurra baita herritarren parte hartzeari dagokionez. PPri esan dio nahiz eta gobernu taldean ez dagoen, egongo balitz bezala jarduten duela. Uste du 200.000 euro gutxi direla, eta gutxienez 500.000 euro behar direla bizilagunek aurkeztutako 624 proposamenak jorratzen hasi ahal izateko. Bukatzeko eskatu du herritarren parte hartzeari eman beharreko garrantzia emateko.

únicamente se plantean dos propuestas de las 624 presentadas. Critican que el criterio de selección de las propuestas a presentar sea el nivel de apoyo al proyecto político del equipo de gobierno aunque ello se envuelva a través de un proceso como Getxo Txukun, lo cual es un fraude para la participación ciudadana. Al PP le indica que aunque no sea parte del equipo de gobierno actúa como tal. Cree que los 200.000 euros son escasos y se necesitan al menos 500.000 euros para poder ir acercándose a atender las 624 propuestas presentadas por los vecinos. Finaliza solicitando que no se tome a la ligera la participación ciudadana.

Susana Andollok esan du jarduketa proposamenak ez datozela bat herritarrek egindako proposamenekin, eta ezerk ez duela egiaztatzen nondik atera diren proposamenak, bizilagunen proposamenekin ez baitatoz bat.

Susana Andollo manifiesta que las propuestas de actuación no encajan con ninguna de las propuestas realizadas por la ciudadanía y nada acredita de dónde salen las propuestas ya que no coincide con ninguna propuesta vecinal.

Joseba Arregik erantzun du Getxo Txukun prozesu parte hartzailetik eratorritako aurrekontu partida dela, eta kasu honetan aurrekontu kreditu handiagoa eman dela eremu horrentzat, bertan aurrekontu ohikoarekin ere jarduten delako. Planteatu dena da herritarrek proposatutako aldaketa txikiak aukeratzea. Esan du ezberdindu egin behar direla ideiak, proiektuak eta aurrekontuak.

Joseba Arregi replica que se trata de una partida presupuestaria que viene de un proceso participativo que es Getxo Txukun y que en este caso es un mayor crédito presupuestario para esa zona ya que en la misma también se actúa con el presupuesto ordinario. Lo que se ha planteado es una selección de las propuestas de pequeñas mejoras que planteó la ciudadanía. Indica que hay que distinguir entre ideas, proyectos y presupuestos.

Susana Andollok esan du partidaren izena Getxo Txukuneko jarduketak dela. Galdetu du ea nola egin den jarduketen aukeraketa itzulketa txostena egonda, txosten horiek

Susana Andollo insiste en que el nombre de la partida es actuaciones de Getxo Txukun. Pregunta cómo se ha hecho la selección de las actuaciones que se presentan, si hay un informe de

webgunean argitaratuko badira behinik behin. Kritikatu egin du taldeek informazio ezberdina izatea.

devolución, si es que se van a publicar dichos informes en la página web. Critica que todos los grupos no cuenten con la misma información.

Amaia Agirrek esan du Getxo Txukunetik herritarrei itzulketa bat egiten zaiela eskuorri baten bitartez, eta bertan zehazten dela nola egin den aukeraketa eta aukeraketaren arrazoiak.

Amaia Agirre interviene para indicar que de Getxo Txukun se hace una devolución a la ciudadanía a través de un folleto donde se concreta como se ha seleccionado y las razones de la selección.

Ibon Rodríguezek esan du Joseba Arregik zuzen azaldu dituela proiektuen faseak, baina eskatu du berdina azaltzeko bere talde politikoko kideei. Getxo Txukuni buruz esan du ez dela egiazko herritarren parte hartzea, ez baita jakina egin beharreko proiektuak nola aukeratzen diren, eta webgunean ez direlako argitaratzen emaitzak eta prozesu parte hartzailearen zehaztapenak osoko bilkura honetan ezagutarazi direla, eta hori gardentasun falta dela esan du. Getxo Txukun programa kritikatzen jarraitu du, herritar guztiek ezin dutelako parte hartu, eta ez delako azaltzen nola aukeratzen diren taldeak. Bukatzeko esan du ez dutela proposamenaren aurka bozkatuko, jarduketak gauzatu ahal izateko.

Ibon Rodríguez manifiesta que Joseba Arregi ha explicado correctamente las fases de los proyectos pero pide que explique lo mismo a los miembros de su grupo político. De Getxo Txukun opina que no es una verdadera participación ciudadana ya que no se sabe cómo se eligen los proyectos a realizar y no se publicita en la web los resultados y las concreciones del proceso participativo se han conocido en este Pleno y eso es una falta de transparencia. Insiste en la crítica al programa de Getxo Txukun ya que no posiblita la participación de toda la ciudadanía y no se explica como se seleccionan los grupos. Finaliza indicando que no votarán en contra de la propuesta para posibilitar que se realicen las actuaciones.

Susana Andollok esan du herritarrek eta talde politikoek ez dakitela nork aukeratzen dituen aurkeztutako proposamenetatik egin beharreko proiektuak.

Susana Andollo manifiesta que los vecinos ni los grupos políticos saben quién decide los proyectos a realizar sobre las propuestas presentadas.

Proposamena bozkatu da honako emaitzarekin: 17 aldeko boto, EAJ, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 8 abstentzio, PP, EH Bildu.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 8 abstenciones PP, EH Bildu.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica,

proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acuerda:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2018/29, zenbatekoa 200.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2018/29 de Crédito Adicional, por importe de 200.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | | Programa | Zenbatekoa Importe en € |
|---|---|---|---|
| 007/9240/6010000 | Azpiegitura eta Hirigintza Infraestructura y Urbanización | Gardetasuna eta hiritarren partehartzea Transparencia y participación ciudadana | 200.000,00 |

## Finantzaketa / Financiación

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales | 200.000,00 |

**80.- 2018KO PARTE HARTZE AURREKONTUETATIK ERATORRITAKO EKINTZAK EGITEKO KREDITU OSAGARRIA ONESTEA.**

**80.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA REALIZACIÓN DE ACTUACIONES DERIVADAS DE LOS PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS 2018.**

Proposamena irakurri ondoren EH Bilduk aurkeztutako zuzenketaren inguruan eztabaidatu da, 15095 sarrera erregistro zenbakiduna. Horren bitartez aurrekontu parte hartzaileetara zuzendutako kredituak 500.000 euroan gehitzea proposatu da, tokiko merkataritzako ordainketa txartel eta fidelizazio proiektu bat egiteko. Horretarako sektorearen lankidetza eta parte hartzea egongo da, hurbileko merkataritza eta kalitatezkoa lortzeko, gainera gogorarazi du proposamen hori bizilagunen proposamenen artean zegoela.

Tras darse lectura a la propuesta se procede a debatir la enmienda presentada por EH Bildu, con número de registro de entrada 15095, que plantea incrementar en 500.000 euros los créditos destinados a los presupuestos participativos para acometer un proyecto de tarjeta de pago y de fidelización para el comercio local para lo cual se trabajará en colaboración y la participación del sector a fin de lograr un comercio cercano y de calidad, recordando que dicha propuesta se recogía entre las propuestas vecinales.

Inazio Uriartek esan du aurrekontuetako parte hartze prozesuan 1.055.000 euroko kredituak daudela, eta bizilagunen eskariei erantzuten dien kredituak zeintzuk diren adierazi du. EH Bilduren zuzenketari dagokionez, bosgarren postuan geratu zen jarduketa bati buruzkoa da, baina aurkeztutako proposamenak herritarren lehentasunak errespetatzen ditu. EH Bilduren proposamenak 500.000 euroko gehikuntza egotea proposatzen du inolako zehaztapenik gabe, eta ez dute jakinarazi ezta ere edukia, nahiz eta aurkeztu zutenean esan zuten udal talde guztiei informazioa emango zietela. Esan du Sustapen Ekonomikoak 40.000 euro bideratzen dituela Getxo Bono proiekturako, eta horrek 200.000 euroko ondorio ekonomikoak sortzen dituela, eta uste du hori EH Bilduk aurkeztutako proiektua baino eraginkorragoa dela.

Inazio Uriarte manifiesta que el proceso de participación de los prespuestos contempla unos créditos de 1.055.000 euros detallando los créditos que responde a las peticiones vecinales. Respecto a la enmienda de EH Bildu se refiere a una actuación que quedó en quinto lugar pero la propuesta presentada respeta las prioridades ciudadanas. La propuesta de EH Bildu plantea 500.000 euros de incremento sin ninguna concreción y tampoco han informado de su contenido pese a que publicitaron cuando la presentaron que se comprometerían a informar a todos los grupos municipales. Indica que desde Promoción Económica se detinan 40.000 euros a Getxo Bono que genera un efecto económico de 200.000 euros, lo que le parece más eficiente que el proyecto que se presenta por EH Bildu.

Enrique Olasok GUKen izenean esan du zuzenketari dagokionez merkataritza sustatzea garrantzitsua dela, baina proposamen ezberdinak daudela. Zehaztapena falta da ulertzeko, baina justifikatu egin du oposizioko taldeek bitarteko teknikoak falta dituztelako dela. Parte hartze kontzeptua moteltzen ari dela esan du, zuzenketak bosgarren proposamena bultzatzen duelako, baina galdetu du ea non geratu den laugarrena, eta esan du ez dutela prozesuaren berri. Gainera, proposamena bultzatzea ezinezkoa egiten duten prozesu parte hartzailearen zenbait akats adierazi ditu.

Enrique Olaso, en nombre de GUK, indica sobre la enmienda que la potenciación del comercio es importante pero hay diferentes propuestas. Falta concreción para entender la misma aunque la justifica por la falta de medios técnicos de los grupos de la oposición. Ve que el concepto de participación está degradándose ya que la enmienda apoya a la quinta propuesta pero se pregunta dónde queda la cuarta y que no se conoce el proceso y detalla unas deficiencias del proceso participativo que no posibilitan apoyar la propuesta.

Santiago Sainzek esan du zuzenketa ez dela azaldu, eta txartelaren edukiari buruz gutxi dakitela. Helburu horretarako uste du bide hori ez dela

Santiago Sainz manifiesta que la enmienda no ha sido explicada y el contenido de la tarjeta no se conoce más que muy vagamente. Para esta

egokiena, lehenengo prozesu parte hartzailea egin beharko litzatekeelako, eta gero edukia definitu azkenik ezartzeko. Bere ustez zuzenketak proposatzen duena gauzak alderantziz egitea da, eta horregatik abstenitu egingo da.

Eduardo Andradek esan du osoko bilkura honetan errepikatzen ari den eztabaida bat dagoela. Merkataritza ezagutzen duten guztiek dakite zer den ordainketa eta fidelizazio txartel bat. Ados dago tokiko merkataritzarekin arazoa dagoenaren adierazpenarekin, eta PPek aurten merkataritzaren urtea izatea lortu nahi du. Horretarako, jada lortu dute gobernu taldeak horri buruzko ideia batzuk partekatzea, besteak beste zerga eta tasen arinketa, Getxo Enpresa eta Algortako Dendak proiektuei laguntza gehiago ematea, Getxo Bono ezartzea, etab. Hurrengo astean jorratuko diren aurrekontuetan merkataritzarako eta lotutako jardueretarako laguntzak gehitzen dira. EH Bilduren proposamena zuzena baina gehiegizkoa dela uste dute, eta aurrekontu proiektuan kredituak daudenez ez dute alde egingo, nahiz eta etorkizunean balitekeen alde egitea, merkataritza elkarteekin erkatuz.

Ibon Rodríguezek esan du zuzenketa partida honetan aurkeztu dela aurrekontu hurbilketa kontzeptu batengatik. Onartu du proposamena beste talde batzuekin partekatzeko asmoa zutela, baina konfiantza eza gehitu egin da gobernu taldeak PPrekin aurrekontuak erabaki zituenetik. Aurrekontua aztertu dute, eta ideiak badaude, baina ez dute ikusi merkataritzarako kredituak gehitzeko asmorik dagoenik. Ez da bankuetako txartelen antzeko bat, moneta propioa izango da, baina proposamenak ez du

finalidad no cree que sea esta vía la adecuada ya que primero sería realizar un proceso participativo y luego definir el contenido y su posterior implantación. Estima que la enmienda es empezar la casa por el tejado por lo que se abstendrá.

Eduardo Andrade manifiesta que en todo el Pleno se está produciendo un debate recurrente. Cualquiera que conoce el comercio sabe lo que es una tarjeta de pago y fidelización. Comparte la problemática del comercio local y el PP pretende que esta año sea el año del comercio y han logrado que el equipo de gobierno comparta algunas ideas en este sentido como la desgravación en impuestos y tasas, incrementar las ayudas a Getxo Empresa y Algortako Dendak, implantación de Getxo Bono, etc. En los presupuestos que se tratarán la próxima semana se incrementan las ayudas al comercio y actividades conexas. Creen que la propuesta de EH Bildu es correcta pero excesiva y en el proyecto presupuestario hay créditos y por ello no la apoyarán, pese a que en un futuro podrían apoyarla contrastándola con las asociaciones de comerciantes.

Ibon Rodríguez manifiesta que la enmienda se ha presentado en esta partida por un concepto de cercanía presupuestaria. Reconoce que iban a compartir la propuesta con otros grupos pero la desconfianza ha crecido desde que el equipo de gobierno ha pactado con el PP los presupuestos. Han examinado el presupuesto y ven ideas pero no incremento de créditos para el comercio. No se trata de una tarjeta similar a la de los bancos, tendrá la potencialidad de las monedas propias pero su propuesta no

proiektuaren guztizkoa zehazten, erabiltzaileak behar baitira. Hala ere, udalaren inplikazioa garrantzitsua dela uste du tokiko erosketa zirkuituak sortzeko, eta azken erabakia merkatariek izan beharko luketela uste du. Uste du merkataritzaren definizioan arazo bat dagoela, eta EAJri gogorarazi dio Leioan eta Berangon Getxoko merkataritza kaltetu zuten erabakiak hartu zituztela, eta Getxoko EAJk ez duela horri buruz ezer adierazi. Merkataritza ezin da egingo dutela esan duten plan estrategikoaren zain egon, laguntzak berehala behar dituelako. Uste du Getxo Bono aukera ona izan daitekeela horretarako. EH Bilduk merkataritzari buruz planteatzen duen eredua moneta propiodun tokiko zirkuitua sortzea da, baina uste du merkatariek definitu beharko luketela.

determina la totalidad del proyecto ya que hace falta contar con los usuarios pero ve también importante la implicación del ayuntamiento para generar circuitos locales de compra y la capacidad decisoria última debiera de reservarse a los comerciantes. Cree que hay un problema de definición de comercio y recuerda al PNV que en Leioa y Berango adoptaron decisiones que perjudicaron al comercio de Getxo y ante las mismas el PNV de Getxo guardó silencio. El comercio no puede esperar al plan estratégico que manifiestan se va a realizar ya que necesita urgentemente las ayudas. Cree que Getxo Bono puede ser un camino a potenciar. El modelo de EH Bildu de comercio es crear un circuito local con moneda propia y cercano pero estima que los que deben definir deben ser los comerciantes.

Inazio Uriartek erantzun du proposatutako kreditua prozesu parte hartzaileari buruzkoa dela, eta EH Bilduk jendaurrean aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa gainditzen duen kopurua gehitu nahi duela prozesu parte hartzailearen ondoren. Esan du prozesu parte hartzailea eredugarria izan dela, eta azalpen guztiak emanda daudela. EH Bilduk proposatutako neurriak interesgarriak izan daitezkeela uste du, baina zenbatekoaren justifikazioa falta dela uste du, eta berriz ere esan du Getxo Bono sustatzea jarduketa eraginkorra izan daitekeela. Bukatzeko, Getxoko merkataritzaren egoeraren berri eman du.

Inazio Uriarte replica que el crédito que se propone es referido al proceso participativo y EH Bildu propone añadir más allá de lo que se hizo público como cuantía prespuestaria a incorporar tras un proceso participativo. Manifiesta que el proceso participativo ha sido ejemplar y se han dado todas las explicaciones. Las medidas que propone EH Bildu pueden ser interesantes pero no ven la justificación de la cuantía e insiste en que le parece una línea eficiente la de impulsar el Getxo Bono. Finaliza su intervención dando cuenta de la situación del comercio en Getxo.

Ibon Rodríguezen iritziz gobernu taldeak mozioen atalean eztabaidatu nahi ditu gai guztiak, eta ez puntu honetan. Zuzenketan, txartela ezarri aurretik prozesu parte hartzailea eta

Ibon Rodríguez estima que el equipo de gobierno quiere debatir en el apartado de mociones todas las cuestiones y no en este punto. La enmienda plantea un estudio y un proceso participativo

azterketa bat egitea planteatu da. Ez du dudan jartzen Getxoko merkataritzaren kalitatea, baina dudan jartzen ditu gobernu taldearen politikak. Uste du jende gehiago inplikatu behar dela Getxo Bono proiektuan. Esan du, urtarriletik Algorta erdialdean 19 denda itxi dituztela, eta geroz eta lonja huts gehiago daudela. Gobernu taldeak ez ditu mozioak betetzen, eta ez dio Merkataritza Mahaiari deialdirik egiten. Inazio Uriarteri esan dio proposamenen aurka bozkatzea ados ez egotea dela pentsatzeak esan nahi duela zuzenketa honen aurkako botoak prozesu parte hartzailea hasteko kontrako botoak direla Getxoko merkatarientzat txartel bat martxan jartzeko, horretarako 500.000 euro bideratuz.

Santiago Sainzek PP kritikatu du esanez Ciudadanosen mozio bati buruz ari direla berau kritikatzen, PPek ez duenean mozio batik ere aurkeztu. Zuzenketan existitzen ez diren azterketa eta txartel bati dirua bideratzea planteatzen da, eta kritikatu egin du PP proposamen horren alde egotea. Ogasun zinegotziari erantzun dio merkataritza gune handiak tokiko merkataritzaren etsaiak direla. Uste du Getxo atzean geratzen ari dela industriari eta merkataritzari dagokionez.

Zuzenketa bozkatu dute eta ez da onartu, aldeko 4 botorekin, EH Bildu; kontrako 17 botorekin, EAJ, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstentziorekin, GUK.

Ondoren proposamena eztabaidatu da, jatorrizkoa.

Enrique Olasok esan du proposamenak 1.055.000 euroko kreditua planteatzen

previo a la implantación de la tarjeta. No duda de la calidad del comercio de Getxo pero sí de las políticas del equipo de gobierno. Cree que hay que implicar a más gente en el proyecto de Getxo Bono. Informa que desde enero en Algorta centro se han cerrado 19 tiendas y que cada vez hay más lonjas vacías. El equipo de gobierno no cumple las mociones ni convoca la Mesa de Comercio. Manifiesta a Inazio Uriarte que lo que ha indicado respecto a que votar en contra de las propuestas, es no estar de acuerdo significaría que los que votan en contra de esta enmienda están en contra de iniciar un proceso participativo para poner en marcha una tarjeta con los comerciantes de Getxo, destinando para ello 500.000 euros.

Santiago Sainz critica al PP que se refiere a una moción de Ciudadanos criticando la misma cuando el PP no ha presentado ninguna moción. La enmienda plantea un dinero para un estudio y una tarjeta que no existe y critica al PP que le parezca bien la propuesta. Al concejal de Hacienda le replica que las grandes superficies comerciales son enemigas del comercio local. Cree que en Getxo tanto en el ámbito comercial como industrial se está quedando atrás.

Sometida la enmienda a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu; 17 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstenciones, GUK.

A continuación se procede a debatir la propuesta en su sentido original.

Enrique Olaso interviene manifestando que la propuesta plantea un crédito de

duela eratorritako jarduketentzako, hau da, gobernu taldeak aurrekontu parte hartzaileak izendatzen dituen horientzako. Proposamenek, espazio publikoak hobetzeko beste guztiek bezala, badakite alderdi politikoen eta herritarren babesa izango dutela. GUKen iritziz, arazoa parte hartzea zer den ulertzea da, GUKek kontzeptu zabala baitu, alderdien arteko akordioa ahalbidetuko lukeena. Ez du onartzen gobernu taldeak bideratutako eta leundutako parte hartzea. Aurrekontuetako parte hartzea diseinatzeko eskumena nork duenari dagokionez, uste du Osoko Bilkuraren eskumena dela, aurrekontuak onesteko eskumenduna baita, baina hori ez da Gobernu Batzarrean zenbait arau onetsi zituen gobernu taldearen irizpidea, arau horiek oposizioko taldeak kontuan hartu gabe onetsi baitzituzten, eta horrek gobernu taldeak herritarren parte hartzearekiko duen kontzeptua zein den azaltzen eta egiaztatzen du, eta kontzeptu horrek ez du herritarren aniztasunetik eratorritako legezko babesik ezta babes demokratikorik. Gobernu taldeari eskatu dio kontuan hartu dezala aurrekontuen prozesu parte hartzailearen jabea Osoko Bilkura dela, eta printzipio hori ez baldin badute errespetatzen epaitegietara joan beharko direla. Gobernu taldeak onetsitako prozesu parte hartzaileari buruzko arauei dagokienez esan du horiek ez daudela webgunean, eta beraz, herritarrei ezkutatu egiten zaizkiela, horietariko batzuk herritarren parte hartzean egindako proposamenen aukerak edo ezinezkotasunak zehazten dituztenean. Komunikazio Atalaren txosten bat dagoela adierazten duen arauen zati bat irakurri du, eta txosten horren berri ez dago, eta txostenik ez dagoenez, ez dakite ekimen bat lehenengo fasetik bigarren fasera

1.055.000 euros en las actuaciones derivadas de lo que el equipo de gobierno denomina presupuestos participativos. Las propuestas, como cualquier otra que mejore los espacios públicos, saben que gozarán del apoyo de los grupos políticos y de la ciudadanía. El problema para GUK está en qué se entiende por participación ya que GUK tiene un concepto amplio que podría posibilitar un acuerdo con todos los grupos. No admite una participación orientada y cepillada por el equipo de gobierno. Respecto a quién es el competente para diseñar la participación en los presupuestos, cree que corresponde al Pleno ya que es el competente para la aprobación de los presupuestos, pero ese no es el criterio del equipo de gobierno que aprobó unas directrices en julio en la Junta de Gobierno sin tener en cuenta a ningún grupo de la oposición, lo que plantea y demuestra el concepto de participación ciudadana del equipo de gobierno, concepto que no cuenta con el respaldo legal ni democrático derivado de la pluralidad ciudadana. Pide al equipo de gobierno que sea consciente que el dueño del proceso participativo de los presupuestos es el Pleno y que si no respetan ese principio se verán obligados a acudir a los tribunales. Respecto a las directrices del proceso partivipativo aprobado por el equipo de gobierno manifiesta que no está en la página web y, por tanto, se oculta a la ciudadanía cuando algunas de ellas determinan la posibilidad o imposibilidad de los planteamientos de las propuestas realizadas en la participación ciudadana. Da lectura a parte de las directrices en las que se recoge que existe un informe del área de Comunicación, informe que no se conoce, al no existir el informe se desconoce el criterio por el cual una

pasatzeko irizpidea zein den, eta kritikatu egin du azkenean Gobernu Batzarra dela erabakitzen duena aurrekontuetan prozesu parte hartzaile bezala zer gehituko den. Nahiz eta erabakiak ez diren arrazoitu eta emaitza ez den gehitu aurrekontu proiektura. Ezin da jakin planteatutako proposamenak herritarrengandik eratorriak diren eta ezin dira jakin ezta ere gobernu taldeak proposamenak aukeratzeko erabilitako arrazoiak zeintzuk diren. Parte hartze eredu hori kritikatu du. Esan du babestu daitekeen proposamena aurkeztu dutela, baina ados ez dauden parte hartze prozesu baten ondoren planteatu dela.

iniciativa pasa de la primera fase a la segunda y critica que al final del proceso es la Junta de Gobierno la que decide qué se introduce en los presupuesos como proceso participativo. Pese a que se sigue las decisiones no se ha motivado ni se ha incorporado el resultado al proyecto de presupuestos. No se puede conocer si las propuestas que plantean son las que se derivan de de la ciudadanía ni las razones de la selección de las propuestas por el equipo de gobierno. Critica este modelo participativo. Manifiesta que presentan una propuesta que pudiera ser apoyada pero se plantea tras un procedimiento participativo que no comparten.

Eduardo Andradek ulertzen ditu kritikak, eta nolabait horiekin ados egon daiteke, baina proposamen honetan herritarrek eskatutako eta erabakitako ekintza zehatzak planteatzen dira. Onartzen du kritika politikoa, baina planteatzen dena dirua ematea da obrak egikaritzeko.

Eduardo Andrade entiende las críticas y puede parcialmente compartir las mismas pero en esta propuesta se plantean acciones concretas demandadas y decididas por la ciudadanía. Admite la crítica política pero lo que se plantea es dotar de dinero para ejecutar las obras.

Ibon Rodríguezek esan du EH Bildu abstenitu egingo dela, nahiz eta proiektuak beharrezkoak izan zenbaitetan ez baitira jasotzen besteak beste komun publikoei buruzkoan zenbatekoa ezta kokapena ere, eta inoiz ere ez dira zehazten egikaritze epeak.

Ibon Rodríguez manifiesta que EH Bildu se abstendrá porque los proyectos son necesarios aunque no consta, en alguno de ellos como el de los aseos públicos ni el número ni la ubicación, ni en ningún caso los plazos de ejecución.

Inazio Uriartek erantzun du esan zutela zazpi komun publiko izango direla, lau berriak, eta gainerakoak konpondu edo berritu egingo direla. Komun berri bakoitzaren kostua 80.000 eurokoa da. GUKi adierazi dio kritika tekniko oso nahasgarria egin duela, eta horrek ez duela ezertarako balio. Esan du ezberdina dela legezkoa dena eta exekutiboa dena. Adierazi du idazkariaren txostenean prozesu parte

Inazio Uriarte replica que ya ha indicado que se trata de siete aseos públicos de los que cuatro son nuevos y el resto se arreglan o se renuevan. El coste de cada aseo nuevo es de 80.000 euros. A GUK le indica que ha realizado una crítica técnica muy liosa que no conduce a ningún lado. Manifiesta que existe una diferencia entre el legislativo y el ejecutivo. Indica que el secretario en su informe reconoce

hartzaileko emaitza jasotzen dela, baina adierazten dela emaitza horretan ez dela aurrekontua sartzen, baina kreditu osagarria gehitzean aurrekontuan gehitzen dela azken finean. Esan du prozesua foro ezberdinetan azaldu dela, eta emaitza webgunean dagoela. Azaldu du 1.076 boto eman direla, eta ez direla albo batera utzi behar, baina ematen duela baztertu egiten direla.

el resultado del proceso participativo pero indicando que el resultado no se incluye en el presupuesto pero al incorporarse el crédito adicional se acaba integrando en el prespuesto. Manifiesta que el proceso se ha explicado en diferentes foros y el resultado se recoge en la página web, explicando que se ha emitido 1.076 votos, que no son de despreciar, aunque al parecer si lo desprecia.

Ibon Rodríguezek esan du 1.076 botoak ez direla albo batera utzi behar, Getxon bizi diren 79.500 bizilagunetatik kopuru garrantzitsua baita, baina Nagusien Etxea mantentzeko bozkatu duten 5.000 bizilagunetatik 500en botoak, irizpide horri jarraituz, gobernu taldearentzat kanpoan utzi daitekeen kopurua dela esan du. Prozesu parte hartzailea kritikatu du iruzur txikia delako, gobernu taldeak esaten baitu bozkatu daitekeela eta ezin dela bozkatu, eta gainera proiektuak gobernu taldearen irizpidera egokitu behar direla. Zehaztapenei dagokienez kritikatu egin du gobernu taldeak ematen dituenak beti azken ordukoak izatea. Berriz ere esan du aurrekontu prozesu parte hartzailea baino handiagokoa den parte hartze proportzioan gobernu taldeak Romoko Nagusien Etxeko proiektua sistematikoki ez entzutea eta albo batera uztea.

Ibon Rodríguez manifiesta que 1.076 votos no son para despreciar ya que es un porcentaje importante sobre las 79.500 personas que viven en Getxo pero con ese criterio 500 votos sobre 5.000 personas que son las que han votado para mantener la Nagusien Etxea sí parece una cuantía despreciable para el equipo de gobierno. Critica el proceso participativo por ser un pequeño fraude, ya que el equipo de gobierno dice qué se puede votar y qué no y además deben ajustarse los proyectos al criterio del equipo de gobierno. Respecto a concreciones critica que las que da el equipo de gobierno son siempre a última hora. Insiste en que una proporción participativa mayor que la del proceso participativo del presupuesto el equipo de gobierno desoye y desprecia sistemáticamente en torno a la Nagusien Etxea de Romo.

Enrique Olasok erantzun du GUKek ez dituela emandako iritziak albo batera uzten, baizik eta kritikatu egiten duela prozesu parte hartzailea egin den modua, eta horrelako kontuak osoko bilkuran gehiago jorratu behar direla. Txostenak ezagunak izan behar dira, proposamenak albo batera uzteko arrazoiak azaldu behar dira, eta ez dira irizpide politikoak aplikatu behar. Parte hartzearekin batera doa kontrol

Enrique Olaso replica que GUK no desprecia las opiniones emitidas sino que critica como se ha realizado el proceso participativo y que en esas cuestiones debe tener más parte el Pleno. Debe conocer los informes, se deben explicar las razones por las que se apartan propuestas y no aplicar criterios políticos. La participación va unida al control democrático y en Getxo se han realizado procesos

demokratikoa, eta Getxon prozesu hobeak egin izan dira, besteak beste Bentakoa, prozesu parte hartzaileen ikuspuntutik.

mejores como ha sido el de La Venta, desde un punto de vista de procesos participativos.

Jose Luis Landak, GUKen esku hartzeari dagokionez esan du eskumen irregulartasunak, dirigismoak eta abar salatu dituztela. Gogorarazi du 2016. urtean milioi bat euro gehitu zirela prozesu parte hartzaileentzat EH Bildurekin lortutako akordioaren ondoren, eta aurrekontu honetan inork ez zuela prozedura dudan jartzen, eta proposamenetan irizpide orokorrak eskatzen zirela. Proposamenak nola aukeratu direnari dagokionez GUKek kritikatu egin du, eta kritika onartzen du, baina gogorarazi du aurten oraindik ez dagoela aurrekonturik, eta abendutik planteatu zitzaiela aurrekontu proiektu bat eta ez dutela erantzunik eman, eta aurreko urtean, aurrekontu erabakia lortzeko egin ziren negoziazioetan, GUKen erantzuna whatsapp bat izan zela. UAOn azterketa taldea dagoela gogorarazi du, eta bertan, udaleko talde guztiak gonbidatuta daudela parte hartzeko, non gai hori jorratzen ari diren baita ere. Ezetsi egin du leunketak, opakutasunak eta dirigismoa egotea herritarren parte hartze prozesuan.

Jose Luis Landa, respecto a la intervención de GUK, manifiesta que han indicado la existencia de una irregularidad competencial, dirigismo, etc. Recuerda que el año 2016 se incluyó un millón de euros para procesos participativos tras el acuerdo con EH Bildu y en este presupuesto nadie cuestiona el procedimiento y se exigían unos criterios generales en las propuestas. Respecto a cómo se han elegido las propuestas GUK critica, y asume la crítica, pero recuerda que este año aún no hay presupuesto y que desde diciembre se les planteó un proyecto de presupuesto al que nada han contestado y que el año pasado en las negociaciones que se realizaron para intentar formar un acuerdo presupuestario toda la respuesta de GUK fue un whatsapp. Recuerda que hay un grupo de estudio en el ROM al que están todos los grupos municipales permanentemente invitados que está abordando también este tema. Niega que existan cepillados, opacidad y dirigismo en el proceso de participación ciudadana.

Ibon Rodríguezek gogorarazi du 2016ko aurrekontuan EH Bilduk aurrekontu parte hartzaileak gehitzeko eskatu zuela, baina baldintza bezala jarri zenean prozesu parte hartzailean gehitzen zena gobernu taldearen programarekin edo aurrekontu akordioko sinatzaileen programarekin bat etorri behar zela, EH Bilduk prozesu horiek kritikatu zituela. Esan du, aurrekontuari dagokionez, 2017ko abenduaren 19tik aurrekontuari buruz planteatutako zenbait konturen

Ibon Rodríguez recuerda que en el presupuesto de 2016 EH Bildu pidió incorporar los presupuestos participativos pero cuando se puso como condición que aquello que se incorporara en el proceso participativo debería ser acorde con el programa del equipo de gobierno o de los firmantes del acuerdo presupuestario EH Bildu criticó dichos procesos. Indica que en relación al presupuesto desde el día 19 de diciembre de 2017 están esperando la respuesta a una serie de cuestiones

inguruko erantzunaren zain daudela, eta beraz, gertakariek ukatu egiten dutela eskuzabala den politika hori, non gobernu taldeak aurrekontu erabakiak errespetatzen dituela adierazten duen.

que plantearon entorno al presupuesto, por lo que los hechos niegan esa política de mano tendida que el equipo de gobierno manifiesta tener respecto a los acuerdos presupuestarios.

José Luis Landak erantzun du abenduaren 21ean EH Bildurekin azken bilera egin zela, eta bertan alderdien konfiantza ezari buruz hitz egin zela, eta gobernu taldeak zenbait baldintza planteatu zituela, bere iritziz gutxienekoak zirenak EH Bildurekin akordio batera iristeko, eta EH Bilduk ez zuela onartu esan du, eta ondoren esan zuela onartu ez zuenez, akordioa indargabetu egingo zela.

José Luis Landa replica que el 21 de diciembre es la última reunión que se mantuvo con EH Bildu, se habló de la desconfianza que había entre los grupos y el equipo de gobierno planteó una serie de condiciones que entendía mínimas para llegar a un acuerdo presupuestario que EH Bildu no admitió y posteriormente EH Bildu publicitó que ante esa no admisión no cabía el acuerdo.

Proposamena bozkatu da honako emaitzarekin: 17 aldeko boto, EAJ, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 8 abstentzio, GUK, EH Bildu.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor; PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 8 abstenciones, GUK, EH Bildu.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acuerda:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2018/30, zenbatekoa 1.055.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2018/30 de Crédito Adicional, por importe de 1.055.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | | Programa | **Zenbatekoa** Importe en € |
|---|---|---|---|
| 007/9240/6010000 | Azpiegitura eta Hirigintza Infraestructura y Urbanización | Gardetasuna eta hiritarren partehartzea Transparencia y participación ciudadana | 1.055.000,00 |

## Finantzaketa / Financiación

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako<br>Remanente de tesorería para gastos generales | 1.055.000,00 |

**81.- GETXO KIROLAK ERAKUNDEAN INBERTSIOAK EGITEKO KREDITU GEHIGARRIA ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Enrique Olasok esan du formak garrantzitsuak direla, eta adierazi du kreditu hori ez dela jorratu Getxo Kirolakeko Batzorde Zuzendarian, eta bere iritziz kontuan hartu beharreko kontua dela, eta Getxo Kirolakeko Batzorde Zuzendaria kanpoan uztea finkatutako jarrera dela, eta ez daudela ados, eta gainera legez kanpokoa dela adierazi du. Esan du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai batean Kultura Aretoari buruz hitz egiten dela eta beraien iritzia babesten duela, hau da, Batzorde Zuzendariak direla politikak zehaztu behar dituztenak, eta presidenteak horiek egikaritu behar dituela.

Inazio Uriartek Enrique Olasori esan dio faltsukeria baten gainean gezur bat sortzen ari dela, aurkeztu dena Osoko Bilkurak onetsi behar duen transferentzia bat baita, eta gero Getxo Kirolakek erabakiko duela kreditua zertan erabiliko duen. Esan du GUKek engainatu egin nahi duela. Ogasun Batzordean beharrezko azalpenak eman dira. GUKen arrazoiak normalean faltsukeriaz beteta egoten dira. Esan duena entzuteko eskatu dio, autokritika bezala balioko diolako, pertsona moduan hobetzeko.

Enrique Olasok erantzun du bera ez

**81.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA REALIZACIÓN DE INVERSIONES EN GETXO KIROLAK.**

